



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

**KONTSEILUA**



PRENTSA OHARRA 2021/11/04

## EUSKARAKTIBATU!

Osasun egoerak ekarritako etenaldia, barne lanak egiteko baliatu dugu **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluan**. Berrantolatu, gogoeta egin eta aurrera begira jarri gara.

Orain, kalera salto egiteko garaia heldu da. Elkartzeko, ospatzeko eta ilusioa berreskuratzeko gosez gaude. Plazara bueltan gatoz eta euskara erdigunera ekarri nahi dugu.

Iazko egoera bereziaren ostean, **Aiaraldeko Euskararen Eguna** elkarrekin ospatuko dugu berriz, **abenduaren 4an Luiaondon**. Egun osoko jaia antolatu dugu horretarako, orain arteko ereduari pausu bat harago joz. Gure elkarrearen birsortzea eta euskaltzaleon ber-topaketa ospatu gura dugu; zubiak berreraikiz, komunitatea berrindartuz, interpelatuz eta aktibatuz.

Haur, ume, nerabe, gazte, heldu eta edadetu, komunitate osoa deitu nahi dugu **Luiaondora**. Eskaintza oparo prestatu dugu, laster ezagutzera emango dugun egitarau zabalarekin: musika, antzerkia, lehiaketak, bertsoak, jolasak, kirola, kultura,... Elkarre eta eragile ezberdinekin elkarlanean arituko gara. Festa ereiteko baliatuko dugu, etorriko diren erronka berriei bide emanez eta energia bilduz.

Apustu handia egin dugu eta ahalegin horretan **Aiarako Udalaren, Aiarako Kuadrillaren** eta **Luiaondoko Administrazio Batzarraren** ekarpena eta babesa berebizikoa izan da.

2016an *Euskararen Errota* martxan jarri genuen, haize freskoa ekarri eskualdera. Bost urte geroago, aktibaziorako dei ozena dakargu. Guztiok dugulako zer eginga euskararen alorrean, guztiok baitugu pausuak emateko beharra, gauden lekuan gaudela. Euskaraz **mintzatu**, euskarazko kultura **kontsumitu**, euskalgintzan **inplikatu**: **EUSKARAKTIBATU!**



## Testuingurua eta xedeak

**Komunitatea** eraikitzen jarraitzeko eta kohesiorako tresna dugu euskara. Sorkuntza eta gozamenerako esparru. Etorkizuna euskaraz marrazten jarraitu nahi dugula ozen aldarrikatzen dugu.

Azken bi urteotako egoeraren ostean, ospakizunerako gosea bada. Autoestimua eta bizi poza berreskuratzeko premia nabaria da. Euskarak eta euskal komunitateak **ospakizun** beharra du.

Kontseilua bizirik dela aldarrikatu nahi dugu, berriz ere plazara indartsu agertuz. Gure **birsortzea** aurreratuko diogu komunitateari, zeina gure Kontseilu Orokorrean gauzatuko den abenduan eta hurrengo 5 urteotarako plazaratuko dugun Plan Estrategikoan.

Eragile ezberdinak interpelatu, elkarte ezberdinekin elkarlanean aritu, euskararen eskaintza oparoa erakutsi eta publiko ezberdinak erakartzeko **agertokia** izango da Euskararen Egun Bateratua.

Ospakizunak utziko dituen aho-zaporea, energia, zubiak, indarrak,... herritarrak eta eragileak euskararen normalizazioan **aktibatze**ko baliatuko ditugu, jaiaren ostean plazaratuko ditugun ekimenetan bidea emanaz.

## Ezaugarriak

2016an jaio zenetik, Aiaraldean euskararen eguna elkarrekin ospatzeko ekimena gauzatu du urtero (pandemiaren salbuespenarekin) gure elkarteak. Komunitatearen kohesioa, elkarlana eta elkar-ezagutza bultzatzea eta euskararen inguruan indarrak biltzea izan da xedea, euskalduntzean aurrera-pausuak ematen jarraitzeko.

Orain arteko txandatzearekin jarraituz (Amurrio 2016, Urduña 2017, Laudio 2018 eta Orozko 2019) aurten **Luiaondon** ospatuko dugu. Aiaraldeko bi herri populatuenen artean kokatzen da Luiaondo, topaketa eta elkargunearen ideia indartuz. Berritasuna ere bada, Luiaondon eskualde mailako jai bat ospatzea.

**Askotariko publikoak** erakarri eta gure lan ildoak diren alorrak landuko ditugu Euskararen Egun Bateratuan: kultura, aisialdia, kirola, hezkuntza, gazteak,...

Jaia ospatzen den inguruan arrasto positibo bat uztea nahi dugu baita. Horregatik **herriko ostalaritzarekin eta merkataritzarekin aurre lanketa** bat egiten ari gara, euskararen normalkuntzan pausuak emateko baliabideak eskainiz eta bezeroak euskaraz kontsumitzera animatzeko bidea emanaz.

2016ko ospakizunetik **5 urte** betetzen diren honetan, ordukoarekin lotuko dugu aurtengoa, hainbat elementu berreskuratuz. Adibidez ibilbide ezberdinak prestatuko ditugu bizikletaz, menditik, oinez,... jaira hurbiltzeko. Eskolekin lanketa bat egingo dugu baita. Dantza, musika,... Zehaztasun gehiago jakiteko, adi egon hurrengo egunetan, gure berri izango duzue eta.

Mintzatu, kontsumitu, inplikatu. **EUSKARAKTIBATU!** Aiaraldea.

## **Aiarako Kuadrillako presidentearen hitzak**

Aiarako Kuadrillako presidente **Encina Castresanak** jaiaren garrantzia azpimarratu, lanerako prestutasuna azaldu eta parte hartzera deitzen du.

*"Aiarako Kuadrillarentzat ospakizun garrantzitsua izango da. Kuadrillako herri guztien artean euskararen alde lan egingo dugu. Horregatik deialdia egiten diegu herritarrei abenduaren 4an Luiaondora hurbil daitezen"*

## **Aiarako alkatearen hitzak**

Aiarako alkate **Gentza Alamillo** egunaren berezia, suspertzeko beharra, zubiak sendotzeko nahia eta euskaraz mintzatzeko deia azpimarratu gura izan du.

*"Berriro ere kultur espiritua, ilusioa, ospatzeko gogoia eta euskararekiko maitasuna berreskuratzeke unea da . Euskararen sustapenaren inguruko ekimenak, ekintzak eta programak suspertzeko unea da. (...) Ondo pasatzearekin batera helburu komun batekin egingo dugu topo Luiaondon: zubiak eraiki, harremanak sendotu eta norabide berean aurrera egitea, euskara protagonista dela. (...) Eskerrak eman nahi dizkiet Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari, Aiarako Kuadrillari eta Luiaondoko Administrazio Batzarrari egindako ahalegina eta dedikazioagatik. (...) Iritsi da garaia, EUSKARAKTIBATU! Goazen euskaraz mintzatzera"*

---

Gehiago jakiteko, jarraitu gaitzazu::

<http://aiaraldekoEuskalgintza.eus/>  
<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskalgintzaKontseilua>

Sare sozialetan:

[youtube](#)

[facebook](#)

twitter [@eusk\\_kontseilua](#)

instagram [@aiaraldeko\\_euskal](#)

